

HAPO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

Ezagutu ezazu Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berria

HAPO, Hasierako Onespeneren fasean, jendaurrean egongo da hiru hilabetez: 2022ko urriaren 15etik 2023ko urtarrilaren 15era.



Gaur egun indarrean dagoen HAPO 2001ekoa da. Berrikuspena nahitaezkoa da, eta prozesu luzea da, hainbat faserekin, behin betiko onartu arte. 2013 eta 2015 artean, lehen parte hartzeko prozesua eta erakusketa-aldia egin ziren, eta Aurrerakinaren dokumentu teknikoan jasota dauden hainbat alternatiba eratorri ziren bi ekintza hauetatik.

2018an, Udalak HAPOren berrikuspenari ekin zion berriro, alternatibak eguneratuta eta getxotar guztientzat irekita zegoen parte hartzeko prozesu batekin, plan berriaren

irizpideak eta helburuak zehazteko. Horiek 2019ko maiatzean onartu ziren, gero arau-aldaketa baten bidez eguneratu ziren eta 2020ko martxoan bigarren aldiz onartu ziren. Gainera, 2019an parte hartzeko prozesu espezifiko bat egin zen HAPOn genero-ikuspegia txertatzeko.

2022ko irailean, HAPOk urrats garrantzitsu bat eman zuen Hasierako Onespeneren dokumentuarekin. Mugarri aipagarria da, plana bere azken helburura hurbiltzen baitu, Behin Betiko Onespenera, oraingo 2001eko HAPO ordezkatzuz.

Zer fase ditu
eta non gaude?

ALDEZ
AURREKO
AZTERLANAK +
AURRERAKINA-
REN ATARIKOA

2013
2015 2018
AURRERAKINA

2022
HASIERAKO
ONSPENA

BEHIN-
BEHINEKO
ONSPENA

BEHIN
BETIKO
ONSPENA

Zer arautzen du HAPOk?

HAPO, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, udalerriaren erabateko antolamendua aurrera eramateko oinarritzko tresna nagusia da.

Tresna juridiko honek lurzoruen eta eraikinen erabilerak arautzen ditu. Hau da, HAPOk, funtsean, **zer, non eta zenbat** egin daitekeen arautzen du, Getxoko eremu fisikoan, eraikin eta lurzoru publiko zein pribatuetan.

Fase honetako partaidetza

Hiru hilabetez, **2022ko urriaren 15etik 2023ko urtarrilaren 15era bitartean**, Udalak herritarrei hurbilduko dizkie plan berriaren edukiak. Lau hitzaldi publiko, hiru erakusketa, herritarrei kontsulta partikularrak egiteko arreta, parte-hartze digitala eta Plangintzaren Aholku Batzordearekin saioak aurreikusten dira, baita ere haur eta gazteekin ikastetxeetan egingo diren saioak.



HAPO
PGOU
GETXO



Erakusketak

urriak 15 - urtarrilak 15

Romo Kultur Etxea RKE
Andra Mariko Kiroldegian
Fadura Kiroldegian

Hitzaldi publikoak

urriak 20 19:00tan
Muxikebarrin

19:00tan
Romo Kultur Etxean RKE

azaroak 3

azaroak 10 19:00tan
Andra Mariko Kiroldegian

19:00tan
Fadura Kiroldegian

azaroak 17

Herritarrentzako arreta


urriaren 15etik urtarrilaren 15era
Faduran, aurretiko hitzorduarekin



www.hapo-getxo.eus

Hor aurkituko duzu HAPO berriari
buruzko informazio guztia,
parte hartzeko ekintzak,
eta kontsulta partikularretarako aurretiko
hitzordua eskatu ahal izango duzu.

HAPO berriaren balore nagusiak



Nola eragiten du HAPO berriak auzoetan?

HAPO berriak eragin positiboa izango du **Andra Mari** auzoan, bertan babestu eta arautu egingo baita lurzoru urbanizaezinean dauden etxebizitzek eta baserriek legezko babesa izan dezaten, eraikinak eta lehendik dagoen ingurune naturala zaintzen eta birgaitzen laguntzeko. Hiri-lurzoruko gunekak, bestalde, Plan Berezi baten mende geratuko dira.

Ibarbengoatik, Murutik eta Galeatik hurbilen

dagoen Andra Mari auzoko eremua lurzoru urbanizagarriko sektoreetako etxebizitza, parke eta ekipamendu berriek osatuko dute.

“Eraikitako Getxoko” gainerako auzoetan (**Areeta, Romo, Algorta, Neguri edo Aiboa**, besteak beste), planak hainbat jarduera zehatz aurreikusten ditu:

- 11 eraberritze- edo berritze-jarduera integratu, espazio publikoa hobetzeko eta **1.160 inguru etxebizitza berri** egiteko. Hauek dira: Martikoena, San Nikolas, Trinitarioak, Katea-Puerto Urduña, Algorta, Zubilleta, La Galea, Ormaza, Txiskiena, Areneazpi, Nervio-Iturgitxi.

- 28 zuzkidura-jarduketa, gehienak bizitegikoak, gutxi gorabehera **200 etxebizitza** gehiago izango dira eta espazio publikoa edo ekipamenduak hobetzea dakarte.

Azkenik, hirigintza-plan zehatzetara lotuta dauden 11 eremu daude: lurzoru urbanizagarriko 2 sektore; hiri-berrikuntzako 2 plan berezi **Portu Zaharreko** espazio publikoan eta **Xake plazan**; 6 plan berezi Andra Mariko egungo hiriguneetan; eta bateragarritasun-plan bat **Mimenagako** eremuan, Berangoko mugan.

HAPO berriaren ardatzak

HAPO berriak **jasangarritasun integratu**ko eredu bat lortu nahi du, lehentasunezko lau ardatz uztartuz: **soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa** eta **fisikoa**.

GIZARTEA

INGURUMENA


EKONOMIA

FISIKOA



GIZARTEA


- Biztanleria mantentzea.
- Auzoak modu orekatuan garatzea, gizartearen, belaunaldien, familia berrien eta generoaren ikuspegitik.
- Bizitegi-eredu berriak ahalbidetzea, bizitzako etapa guztietako beharrak asetzeko.



Zuzkiduren eta ekipamenduen arteko oreka auzoen artean.

HAPO berriak honako hauek aurreikusten ditu, besteak beste:

- 229.348,35m² espazio libre. Horien artean, 35.206,94m²-ko parke handi bat Murun.
- 7.700m² eta 6.278m² Tosun eta Martiturrin, ekipamendu generikoetarako. Adibidez, Tosun, Ibarbengoako metroaren ondoan, kirol-ekipamendu berri bat jartzeko, Gobela, Adra Mari eta Fadurako egungo kirol-eskaintza osatzeko.
- Zuzkidura-bizitokietarako lurzatiek erreserba:
 - 2.185m² Zubilletan
 - 3.729 m² eta 3.982 m² Santa Marina Haitzean
 - 1.220 m² Dilizgoikoan



INGURUMENA


- Lurzoruaren okupazioa murriztea.
- Ingurumen-balio handiko eremuak eta korridore berdeak babestea.
- Klima-aldaketara egokitzea eta uholde-arriskuak murriztea.
- Hiriko irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarritasun ezartzea.

Lurzoruaren okupazio murriztea.




Klima-aldaketara egokitzea eta uholde-arriskuak murriztea.





EKONOMIA

- Produkzio-sare estrategikoa sustatzea.
- Ehun ekonomikoa bultzatzea.
- Erabileren nahasketa erraztea.
- Bizitegi- eta ekoizpen-garapenak orekatzea.



Produkzio-sare estrategikoa sustatzea.

Horretarako, HAPOk hainbat proposamen ditu, garrantzitsuenak:

- Jarduera ekonomiko estrategikoetarako lurzoru urbanizagarriko 14ha-ko sektore bat abian jartzea Martiturrin.
- Hurbileko ehun ekonomikoa bultzatzea, hiria biziberritzeko erabileren nahasketa erraztuz.



Erabileren nahasketa erraztea eta hurbileko merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea.



FISIKOA

- Hiri trinkoaren eredua, sozialki kohesionatua.
- Gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-sinergien zirkulu bat sortzea, eraikinen eta hiri-espazioen birgaitzea erraztuz.
- Hazkunde iraunkorra eta auzoen integrazioari baldintzatua bermatzea; hiri BATUA eta ATSEGINA.



Hiri trinko bat garatzea planteatzen da, etxebizitza berriak planifikatuz egungo hiriaren hedapen gisa, modu kolektiboan, erabileren nahasketarekin eta hurbiltasun-distantziekin.

Gaur egun eraikita dagoen Getxo bete egiten da, eraberritzeko edo berritzeko 11 jarduketa integraturen eta 28 zuzkidura-jarduketaren bidez.

Eraikinen eta hiri-espazioen birgaitzea erraztea.



Genero-ikuspegia HAPOn txertatzea: familia-kontziliazioa eta adingabeen eta adinekoen autonomia hobetzea


Hirigintzak generoan duen inpaktuak, batez ere, familia-kontziliazioan eta pertsonen (adinekoak edo adingabeak) zaintzan du eragina. Hortik datoz **zaintzaren hirigintza** edo **mugikortasunaren zaintza** terminoak, genero-hirigintza deritzonari lotuak. Gaur egun, uztartzearen pisua, nahiz eta ez den eta soilik emakumeena izan behar ez duen arren, batez ere emakumeei dagokie.

Horrela, genero-ikuspegia Getxoko HAPO berrian txertatzeak hiri-eredu askotariko eta trinkoak bideratzen ditu. Hau da, **denetik egotea, eta gertu**. Herritarren eguneroko beharrak asetzen dituzten hiri-ereduak; etxebizitza, enplegua, merkataritza eta zerbitzuak, ekipamenduak eta espazio publikoa. Familia, lana eta etxea uztartzeko premia handiena duten pertsoeni arreta berezia jarritz.


Mugikortasuna ere funtsezko gaia da mugikortasun-moduei dagokienez (oinezkoak eta garraio publikoa dira nagusi, alde handia baitago emakumeen eta gizonen artean – oro har – horien eta ibilgailu pribatuaren erabileraren artean). Mugikortasunarekin lotuta dago **irisgarritasuna**, berriz ere kontziliazioarekin eta etxea eta beste pertsona batzuk zaintzearekin lotuta, erosketa-orgen, haurtxoen edo mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzearen erabilerari dagokionez. Hirigintzak **segurtasunaren** pertzepzioan ere eragiten du, bai espazio publikoan, zein eraikinetan, eta horrek bateragarritasuna eta zaintza dakartza berekin.

Gainera, adinaren aldagaia, dibertsitate funtzionala eta beste gai batzuk gehitzen badizkiogu, orduan, genero-hirigintzaz haratago, **hirigintza inklusiboaz** hitz egin dezakegu. Horrela, Getxoko HAPO baerriak eragin handia du adingabeen eta adinekoen **autonomian**, baita ere dibertsitate funtzionala dutenean, etab. Berriz ere, eredu askotariko eta trinkoek, mugikortasun irisgarri eta seguruarekin, bai oinezkoentzat bai garraio publikoarentzat, haurren eta nerabeen autonomiari laguntzen diote, bai eta adinekoenari ere.

Berdintasunarekin zerikusia duten zeharkako beste gai batzuk ere badira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko irudikapen sinbolikoa, onarpen soziala, eta hizkera ez-sexistaren erabilera.



HAPO berrian genero-ikuspegia txertatzeko saio informatiboak eta parte-hartzaileak, 2019an.



2018an HAPOren Aurrerakinaren Jendaurreko Erakustaldian izandako parte hartzeko ekintzak: erakusketak, informazio- saioak, parte hartzeko saioak, haur eta gazteekin egindako saioak. Horrez gain, partiadetza digitala eta kontsulta partikularren arreta egon ziren.

Herritarren parte-hartzea HAPO berrian

HAPO berrirako bidea prozesu luzea da, eta herritarrek parte hartzeko hainbat une izan ditu, plana aberastuz joan direnak.

2013 eta 2015 artean, hainbat saio egin ziren “lantaldeak” deiturikoeekin, eta Getxorako alternatiba desberdinak izan ziren. Alternatiba horiek, jatorri teknikoko beste batzuekin batera, HAPOren Aurrerakina osatu zuten.

2018an, HAPO berriaren Aurrerakina jendaurrean azaldu zen, hainbat ekintza konbinatu zituen parte hartzeko prozesu batekin: lau informazio-saio Getxoko hainbat puntutan, bost parte hartzeko saio presentzial, haur eta gazteekin egindako saioak, talde politikoekin egindako saio bat, 44 banakako bilera eskatu zutenekin, 150 lagunekoa ausazko laginketa bat, Plangintzako Aholku Batzordearekin egindako saio bat eta partaidetza digitala. Hala eta guztiz ere, 750 lagun baino gehiagok parte hartu zuten fase hartan. Aldi berean, hiru erakusketa publiko egin ziren (RKEn, Villamonteko gelan eta Andra Mari Kiroldegian), Getxo Berriko gehigarri bat, eta Aurrerakinaren informazio guztia HAPOren webgunean jarri zen, eta 1600 bisita baino gehiago izan zituen jendaurreko erakustaldiaren epean.

2019an, herritarren parte-hartzeari ekin zitzaion berriro, oraingoan genero-ikuspegia HAPO berrian txertatzeko, eta lan horrek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen.

2022an, iraileko ezohiko osoko bilkuran Hasierako Onespina eman ondoren, HAPO berria **jendaurrean jarriko da berriro**, informazio-hitzaldiekin eta erakusketekin **RKEn eta Andra Mari eta Fadurako kiroldegietan**. Ekintza horiei eta beste batzuei buruzko informazio guztia www.hapo-getxo.eus webgunean dago eskuragarri.